


2021-2022 ikasturteko jarduera eta baliabideak  
Haurren eskubideen eta hiritartasun globalaren oinarritutako hezkuntza

unicef 

haurtzaro bakoitzarentzat



# KONTZIENTZIA HEZIZ

Buruko osasunerako eskubidea eta bizi-ohitura positiboen garapena bultzatzeko hezkuntzak duen papera



# PENTSATZEN, SENTITZEN, IKASTEN ETA BALORATZEN DUGU

Gure bizitzan zehar, pentsatzen dugunak, sentitzen dugunak, ikasten dugunak eta baloratzen dugunak pertsona gisa garatzeko eta ongizaterako ditugun gure aukerak hein handi batean baldintzatzen du. Haurtzarotik gure ezagutzek, emozioek, jarrerak eta portaerak besteekin mantentzen ditugun harremanak moldatzen dituzte, bai eta erronkarik desiragarrienak zein aurrean izango ditugun bizi-krisiak gainditzeko izango ditugun aukerak ere.

Kontzientzia, norberak bere buruari, bere existentziari eta munduarekin duen harremanari buruz duen ezagutza hori alegia, funtsezkoa da buruko osasun on bat bermatzeko. Gure burua zein besteak ulertzeko gaitasunik gabe zaugarriagoak gara eta gure ongizate emozionala arriskuan dago. Baina, askotan, haurrak beren burua, beren prozesu kognitiboak eta emozioak ezagutzea ahalbidetuko dieten erremintatik gabe hazten dira eta, ondorioz, garatzeko aukerak galtzen dituzte. Erreminta horiek hezkuntza-izaerakoak dira eta, horrexegatik, berebiziko garrantzia du

kontzientzia hezteak haur bakoitzak garapenerako, hezkuntzarako eta osasunerako duen eskubidea bermatzeko.

Kontzientziak hitz egiten dugunean, balio-ikuspegi bat ere sartzen dugu barnean. Kontzientziari esker ongia eta gaizkia bereizten ditugu, bidezko dena eta onartezina dena eta elkartasuna, ekitatea edo justizia bezalako balioak aplikatzen ditugu gure eta besteon eskubideak defendatzeko. Kontzientzia hezteak ikasleei etikoki arduratsuak diren aukeraketak egiten laguntzea da eta ondokoetan parte hartzeko aukera ematea da ere:

- hasteko, eskolan, indarkeria, jazarpena, mendekotasunak edo bereizkeria gaitzesten dituen eskola-giro bat sortzen lagunduz;
- ondoren, eta maila globalago batean, bidezko, solidario eta iraunkorrago den mundu bat eraikitzen lagunduko duen herritar gisa.

## Ikaskuntza berari buruzko kontzientzia hartzea

Ikasturte honetan zehar gai hau ikuspegi ezberdinetatik landuko ditugu, jarduera nagusi bat garatuz hiru hileko bakoitzean. Jarrai gaitzazu, sare sozialetan iragarriko ditugun berritasun guztiak ez galtzeko:

-  [twitter.com/UNICEF\\_EDU](https://twitter.com/UNICEF_EDU)
-  [www.facebook.com/educaderechos](https://www.facebook.com/educaderechos)
-  [www.instagram.com/unicef\\_educa/](https://www.instagram.com/unicef_educa/)
-  [www.pinterest.es/educaderechos/](https://www.pinterest.es/educaderechos/)
-  [https://t.me/unicef\\_educa](https://t.me/unicef_educa)

**Izena eman ezazu gure buletinean:**  
[www.unicef.es/educa/novedades](http://www.unicef.es/educa/novedades)



# #GIHFAKTOREA AURKI EZAZU



Haurren Nazioarteko Eguna den azaroaren 20ko asterako jarduera bat proposatzen dizuegu. Bertan, parte hartzeko bere eskubidea aldarrika dezakete gure ikasleek, Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) lortzen lagunduko duten profesionalak hautatzeko erabakiak hartuz.

Garapen Iraunkorrerako Helburuak egia bihurtzeko profesional-talde bat aukeratu beharko bazenu. Zer nolako profesionalak aukeratuko al zenituzke? Zer nolako ezaugarriak eskatuko al zenitzkieke hautagaiei? Zer nolako ezagutza, gaitasun eta jarrerak izan beharko zituzten lanposturako hautagaiek? Jarduera honetan langileak hautatzeko talde baten papera hartu beharko duzue, oso garrantzitsua den

xede batekin: Bidezko, ekitatibo eta iraunkorrago den mundu bat lortu ahal izateko profesional bakoitzak izan behar duen GIH Faktorea (#GIHfaktorea) bilatzea. Planeta eta gizadiaren aldeko talentua bilatzeko ekimen garrantzitsu honetan parte hartu nahi al duzue? Informazio gehiagorako, ikus:

[www.unicef.es/eus/educa/GIHfaktorea](http://www.unicef.es/eus/educa/GIHfaktorea)



## Ikaskuntza berari buruzko kontzientzia hartzea

Jarduera honekin, halaber, buruko osasunaren gaiaren barruan ikasturte honetan lantzen ari garen alderdi oso garrantzitsu bat jorratuko dugu: gure prozesu kognitiboan ezagutza eta gure ikaskuntza autorregulatzea. Lanbide zehatz batzuk gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren gaitasun, ezagutza eta jardueren inguruan hausnartzean gure hezkuntza-prozesu bera baliozkotzen dugu eta epe luzerako gure garapen-aukeretarako hezkuntzarako eskubideak duen garrantziaz ohartzen gara.

**Garapen kognitiboa eta autorregulazioa funtsezkoak dira buruko osasun on baterako. Informazio gehiago [www.unicef.es/eus/educa/buruko-osasuna](http://www.unicef.es/eus/educa/buruko-osasuna) webgunean.**

# BURUKO BAKEKO MAPA ZORIGAIZTOKO TROLL BELDURGARRIENTZAT



Urtarrilaren 30a, Indarkeriaren kontrako eta bakearen aldeko eguna da, eta, aste horretarako, ariketa garrantzitsu bat proposatzen dizuegu: beren emozioak deskubritzen laguntzea troll beldurgarri batzuei, bakean bizitzeko gai izan daitezen.

Troll tribu batek laguntza eskatu digu: beren kobazuloetatik atera eta bizitza modernora egokitu nahi dute baina ez dute jendea ondo ulertzen, ezta beren burua ere, asko frustratzen dira eta eguna haserre eta borrokan ematen dute. Gure xedea da emozio eta sententzioen mapa bat diseinatzea, gida gisa erabil dezaten. Honela, beren burua hobetu ezagutu eta beste pertsona eta troll batzuekin bakean erlazionatzeko aukera

izango baitute. Jarduera hau ikasmaila guztientzako aproposa da. Zenbait emozio eta horiei loturiko sententzioak taldeka esplora ditzakezue. Eraitza irudimen handiko mapa artistiko bat izango da. Mapa ikasgelan edo eskolan erakuts dezakezue, bai eta sare sozialetan partekatu ere #burukobakekomapa #mapadepazmental hashtag erabiliz. Informazio gehiago [www.unicef.es/eus/educa/troll](http://www.unicef.es/eus/educa/troll) webgunean.

## Norberaren emozioen inguruko kontzientzia hartzea

Norberaren emozioak ezagutzea eta onartzea funtsezko osagai bat da buruko osasun on bat bermatzeko. Horrez gain, besteen emozioak aitortzeko gai izateak eta gizarte-ahaleziak garatzeak berebiziko garrantzia du harreman positibo eta konstruktiboak ezarri ahal izateko. Horri esker, bizitzaz gozatzeko, erronkei aurre egiteko eta adeitsuago, baketsuago den eta elkarriketarako irekiago dagoen erakitzekeo gai izango gara. Informazio gehiago [www.unicef.es/eus/educa/troll](http://www.unicef.es/eus/educa/troll) webgunean.



# URA IZATEKO ESKUBIDEA ETA KLIMA SEGURUAGO BAT ALDARRIKATZEN DITUGU!



Ikasturteko azken hilak #UNICEFtantak ekimeneko jardueri eskainiko dizkiegu. Hona hemen egutegian esanguratsuak diren data batzuk: uraren eguna (martxoaren 22a) edo ingurumenaren eguna (ekainaren 5a), adibidez.



2020an, UNICEFek lorpen handiak lortu zituen mundu osoko milioika haurren urerako eta ingurumenerako eskubidea hobetzeko: 942 milioi euro inbertitu zituen, guztira, 143 herrialdetan ur garbia, saneamendua eta erresilientzia bultzatzeko. 2020. urtean UNICEFek, halaber, ur-, saneamendu- eta higiene-programa ezberdinak abiatu zituen larrialdi-testuingurutan, 120 herrialdetan. Hori guztia norbanako, erakunde, enpresa eta gobernuen elkartasunezko laguntzari esker egin da. Ekimen horien

artean zeuden eskolek urtero gauzatzen dituzten #UNICEFtantak lasterketak eta jarduerak. Milaka ikaslek udaberririko abian jartzen duten esfortzu eta irudimena egiazko elkartasun-euria bilakatzen da urtetik urtera, behar gehien duten munduko txoko horietarako.


Ikasturte honetan ere espero zaituztegu, #UNICEFtantak biltzeko!

## Ura eta klima

Ura eta klimaren arteko harremana hezkuntza-maila ezberdinetako curriculumean lantzen den gai bat da. Aurten, klima-larrialdiari eta konponbideen bilaketa bateratuari loturiko haur eta nerabeen eskubideen eta parte-hartzearen alderdi ezberdinak lantzen saiatuko gara. Informazio gehiago:

[www.unicef.es/educa/gotas](http://www.unicef.es/educa/gotas)





## Edizioa

UNICEF Espainiako Batzordea  
[www.unicef.es/educa](http://www.unicef.es/educa)

**Diseinu grafikoa:** Rex Media SL

**Ilustrazioak:** [istock.com/Drawkman](https://www.istock.com/Drawkman), Adobe Stock

Haurren eskubideen, garapen iraunkorraren eta hiritartasun globalaren inguruko hezkuntza-material, bitarteko eta jarduerak UNICEF Espainiako Batzordeak garatzen duen Eskubideen eta Hiritartasun Globalaren inguruko hezkuntzari loturiko ekimena dute ardatz.

Material hau Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak (AECID) diruz babesten duen ondoko proiektuaren barruan ekoiztu da: "ODS E INFANCIA: Promover el cumplimiento de los ODS desde el ámbito educativo, por y con los niños, niñas y adolescentes - 2019/Pry/0513". Bere edukia UNICEF Espainiako Batzordearen ardura eskusiboa da eta eduki horrek ez du, nahitaez, AECIDen iritzia islatzen.

UNICEFek, egiten duen guztian, haur guztien eskubideak eta ongizatea sustatzen ditu. Gure aliatuekin batera, 190 herrialde eta lurraldetan lan egiten dugu konpromiso hori ekintza praktikoak bilakatzeko xedearekin eta arreta berezia eskainiz egoera zaurgarrienean eta baztertuta dauden haurrenganaino iristeko esfortzuari, mundu osoko har guztien onurarako.

Argitalpen hau Creative Commons Atribución- NoComercial-SinDerivar 4.0 Internacional lizentziarekin sortu da, beste lizentziaren bat berariaz jasotzen duten edukien kasuan salbu.



BABESLE: